




MARITXU, NORA ZOAZ?

Doinua: Maritxu nora zoaz I

Neurria: Zortziko txikia (hg) / Lau puntuko txikia (ip).

*Jatorrizko sortan koplak ziren.

Testuaren iturria: Euskal Kantutegia. Eusko Ikaskuntza



Anonimoa

Maritxu (M) eta Bartolo (B) iturrira bidean hasi dira ligatzen, flirtean, maite-jolasean, lore-jokoetan...

- 1 (B) Maritxu, nora zoaz
eder galant **hori**?
(M) Iturrira Bartolo
nahi badezu **etorri**.

(B) Iturrian zer dago?

(M) Ardotxo **txuria**.

(B) Biok edango degu
nahi degu **guztia**.

- 2 (B) Maritxu zuregana
biltzen **naizenean**
poza sentitutzen det
nere **barrenean**.

(M) Bartolo, nik ere det
atsegin **hartutzen**
ur bila noanean
banazu **laguntzen**.

- 3 (B) Maritxu, lagunduko
dizut gaur **mendira**
ur fresko eder bila
hango **iturrira**.

(M) Iturri eder hortan

dagon ur **garbiak**

Bartolo, alaituko
dizkizu **begiak**.

- 4 (B) Maritxu, pentsatutzen
badezu **ezkontzea**
lehendabiziko nitaz
oroitu **zaitea**.

(M) Zure mende jartzen naiz
denbora **guziko**.

(B) Bartolorekin gaizki
ez zera **biziko**.

